IDIAZABAL JDB-AREN KONTSEILU ARAUTZAILEAREN OSOKO BILKURAKO HAUTESKUNDEETARAKO DEIALDIA

Honen bidez, osoko bilkurak 2026ko irailak 18ko bileran hartu duen erabakiaren berri ematen zaie Idiazabal JDBaren Kontseilu Arautzailearen erregistroetan inskribatutako operadoreei. Erabaki horren bitartez, **Kontseilu Arautzaile honen Osoko Bilkurarako hauteskundeak deitzen dira**, bere Estatutuen esparruan, Barne Araubideko Erregelamenduan jasotzen denaren arabera eta, horretarako, **hauteskunde egutegi hau ezartzen da:**

2026/10/05	Hauteskunde Batzordea eratzea.
2026/10/07	Behin-behineko hauteskunde-errolda argitaratzea. (*)
2026/10/07 -2026/10/15	Behin-behineko hauteskunde-erroldaren aurkako erreklamazioak egiteko epea.
2026/10/16	Behin betiko hauteskunde-errolda argitaratzea.
2026/10/16 -2026/11/02	Hautagaitzak aurkezteko epea.
2026/11/05 – 2026/11/09	Hautagaitzen dokumentazioa zuzentzeko epea.
2026/11/10	Hautagaitzen behin-behineko jakinarazpena. Hauteskunde-mahaietako kideak eta ordezkoak argitaratzea.
2026/11/11 – 2026/11/16	Hautagaitzen behin-behineko jakinarazpenaren aurkako errekurtsoak jartzeko epea. Hauteskunde-mahaietako hautaketari buruzko alegazioak egiteko epea.
2026/11/19	Hautagaitzen behin betiko jakinarazpena. Hauteskunde-mahaietako kideen eta ordezkoen behin betiko argitaratzea.
2026/11/20 – 2026/11/29	Hauteskunde-kanpaina.
2026/12/01	Bozkatzeko eguna.
2026/12/04	Hautatutako kideen behin-behineko jakinarazpena.
2026/12/04 – 2026/12/14	Hautatutako kideen behin-behineko jakinarazpenaren aurkako errekurtsoak jartzeko epea.
2026/12/18	Hautatutako kideen behin betiko jakinarazpena.

(*) Erroldak egiteko, amaitutako azken kanpainako ekoizpen-datuak (2026) hartuko dira kontuan. Ganadutegietako ekoizpenen kasuan (A1, A2 eta A3 erroldak), gaztandegien erosketa-adierazpenetatik lortuko dira litro kopuruak; beraz, bereziki gomendatzen da horiek berrikustea eta, behar izanez gero, erreklamazioak egitea. Irailean ekoizpen-jarduera izan duten gaztandegiek, salbuespen gisa, urriaren 2ko 12:00ak baino lehen egin beharko dituzte hileko adierazpenak.

Hautagaitzak aurkezteko, hautagaitzen aurkezpenerako eredu normalizatuari jarraitu behar zaio. Hauteskunde Batzordeak Kontseilu Arautzailearen web-orrian jarriko du eredu hori, jendeak eskuratu ahal izan dezan.

Arkauten, 2026ko Irailaren 18 (a)n

18597209F MIRIAN MOLINA (R: Q5155003F) Firmado digitalmente por 18597209F MIRIAN MOLINA (R: Q5155003F) Fecha: 2026.09.21 10:24:33 +02'00'

Sin.: _____

Idiazabal JDBaren Kontseilu Arautzailearen Idazkaritza